



# Dialogue between Matt McGrath and Pedro Jordano about environmental challenges



Fundación BBVA elkarrizketa

**Ira. 16 2020**

**Kod. W04-20**

**Mod.:**

Online zuzenean

**Edizioa**

2020

**Jarduera mota**

Jarduera irekia

**Data**

Ira. 16 2020

**Kokalekua**

Online zuzenean (ZOOM)

**Hizkuntzak**

Gaztelera Ingelesa

**Antolakuntza Batzordea**



## **Azalpena**

Elkarrizketa bat, gure kontzientziak pizteko.

Matt McGrath, 2019an Ingurumen Komunikazioko Biophilia Saria jaso zuena, eta Pedro Jordano, 2018an Natura Baliabideen Zientzia eta Teknologietako Alejandro Malaspina Ikerketako Sari Nazionala jaso zuena, kliman eta biodibertsitatean gertatzen ari diren aldaketa globalei buruz mintzatuko dira modu zehatzean eta irisgarrian, eta, zeharka, erronka ekologikoei eta klimatikoei buruz. Bizitzen ari garen krisi ekologiko globala eta berau ezagutarazteko moduaren garrantzia azpimarratuko dituzte.

## **Antolakuntza**



# Programa

**2020-09-16**

18:00 - 19:00

“Dialogue between Matt McGrath and Pedro Jordano about environmental challenges / Diálogo entre Matt McGrath y Pedro Jordano sobre los retos medioambientales”

**Matt McGrath** | BBC - Environmental Communication - Periodista medioambiental  
**Pedro Diego Jordano Barbudo** | CSIC - Research professor

---

## Irakasleak



### **Matt McGrath**

Environmental Communication

---

Matt McGrathek teknologia aldizkariaren editore gisa hasi zuen bere lan ibilbidea. 1997an BBCko Radio 5 irratian hasi zen, zientzian eta teknologian espezialista gisa, eta 2006an BBCko zientzia eta ingurumen erreportari bihurtu zen; 2012an ingurumen berriemaile gisa hasi zen, eta gaur egun zeregin horretan jarraitzen du. 2010-2011n Massachusetts Institute of Technology-n (MIT) egonaldi bat egin zuen Knight Science Journalism beka lortu ondoren (zientzia eta ingurumen kazetaritzaren arloko beka entzutetsuena da). Ingurumen erreportari gisa askotariko gaiak jorratu ditu, hala nola lehen elikagai transgenikoen merkaturatzea, edo klima aldaketaren gailurrak eta txosten zientifikoak; biodibertsitatearen krisiarekin batera, garrantzi handikotzat jotzen du azkeneko gai hori. McGrathen kazetaritza lana, online nahiz telebista kateen bidez gauzatutakoa, erreferentzia da mundu osoko milioika pertsonarentzat, ingurumen gai globalei buruzko informazio zehatza eskaintzen baitu.



### **Pedro Diego Jordano Barbudo**

CSIC research professor

---

Pedro Jordano biologoa eta CSICen ikerketa irakaslea da Doñanako Estazio Biologikoan. Aniztasun biologikoa (biodibertsitatea) ikertzen du bereziki, ikuspegi ekologikotik eta ebolutibotik. Entzute handiko sariak jaso ditu Estatuan eta nazioartean, hala nola Natura Baliabideen Zientzia eta Teknologietako Alejandro Malaspina Ikerketako Sari Nazionala (2018), Luis Balaguer-Ekosistemak Saria (2018), Britainiar Ekologia Elkartearen Marsh Saria (2016), Jaime I.a Erregea Saria (2014) eta Estatu Batuetako Ekologia Elkartearen Mercer Saria (2008).

# Matrikula prezioak

INSKRIPZIO

2020-09-16 ARTE

[IZENA EMAN](#)

0 EUR

# **Kokalekua**

## **Online zuzenean (ZOOM)**

Online zuzenean (ZOOM)